

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA

Altzan salatutako sexu-erasoaren aurka kontzentrazio instituzionalik ez egin izanaz

Reyes Carrere Zabala EH Bilduko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin, Mozioa 2021eko ekainaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Maiatzaren 13an Altzako adin txikiko hiru gazteren familiek gizon batek sexu-abusua egin zietela salatu zuten. Albisteak, normala denez, eragin handia izan zuen Altzako bizilagunen artean; izan ere, biktimak eta ustezko erasotzailea auzo horretako bizilagunak dira.

Salaketen larritasuna eta izaera ikusita, ondorengo egunean Donostiako korporazioak adierazpen instituzional bat onartu zuen erasoak gaitzesteko. Dena dela, egun horretan, EH Bilduren iritziairen kontra, beste erabaki ulertezin eta ezohiko bat ere hartu zen: udaletxe aurrean kontzentrazioerik ez egitea.

Alegia, eraso sexista bat salatu den aurreko kasu guztietan erabilitako ohiko protokoloaren prozedura aldatuz, Altzako biktimei eta haien familiei, beste kasuetan ez bezala, ez zitzairen babes instituzionalik publikoki adierazi kontzentrazio baten bitartez. Zergatik? Non dago kasu horren eta besteen arteko diferentzia?

Are gutxiago ulertzen da Altzako erasoaren biktimei babesa emateko elkarretaratzea ez egiteko erabakia, korporazioak berak, geroago, beste bi egin dituenen: bata, bere kirol-monitorearen sexu-abusuak salatu zituen neska adingabe bati babesa emateko, eta, bestea, aste honetan bertan, Tenerifen aitaren esku bi neskatoren hilketari salatzeko.

Bada gobernuaren eginkizuna sexu-erasoen biktima guztiei maila berdinean babesa adieraztea sustatzea. Eta ulertezina da udal gobernu honek, eta, zehatzago, Berdintasun sailak irizpide aldaketa hori onartzea. Jarrera horrek, nolabait, biktima batzuen kontakizuna zalantzan jartzen du, eta hori oso larria da.

Berdintasuneko zinegotzi delegatua batzordean interpelatutakoan, ez zuen mota honetako kontzentrazio instituzionalak sustatzeko inongo ardurarik azaldu.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Hori guztia ikusita, sinatzen duen zinegotziak honako kontrol mozio hau aurkezten du:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari susta dezala, eraso matxista bat salatzen denean, udal korporazioak biktimei babesa adierazteko kontzentrazio publikoa egitea, salbuespenik gabe, udaletxe aurrean.

Donostian, 2021eko ekainaren 18an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldea